



HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREN DEKRETAZOAK

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA PROGRAMAK

2021ko abuzturarte ingelesezko, frantsesezko eta alemanierazko hizkuntza programetan aritzeko aldi baterako akreditazioa (C1en balioak) emango zaie B2 maila izanda eta ondorengo baldintza hauetako bat betetzen dutenei:

- **Bi ikasturte osoz lanean edo 20 hilabetez atzerriko hizkuntzako Haur Hezkuntza edo Lehen Hezkuntzan kotutore aritu izana** Nafarroan 2007/2008 geroztik.

- Hezkuntza Departamentuak antolatutako C1 maila eskuratzeko formakuntzan parte hartu izanaren ziurtagiriaren aurkezpena.

Funtzionarioek probisionalki atzerriko hizkuntzen perfila duten Haur Hezkuntza lanpostuetan parte hartu ahal izango dute beti ere bi ikasturtez atzerriko hizkuntzan kotutore lanetan ibili badira hizkuntzen irakaskuntza programak dituzten ikastetxeetan 2007/2008 geroztik.

Ingeleseko, frantseseko edo euskerako espezialitatean oposaketak gainditu zituzten behin-behineko funtzionarioei administrazioak hizkuntza perfila dituzten lanpostuak esleitu ahal izango dizkie beti ere eskatzen den espezialitatea eta hizkuntza akreditazio badute.

Departamentuak ingelesezko zerrendatan dauden eta IIP programetan ingelesezko kotutore lanetan gutxienez 20 hilabete lan egin duten irakasle guztiak ofizioz Haur eta Lehen Hezkuntzako (euskara eta gaztelania) zerrendetan sartuko ditu.

STEE-EILASen lehenengo unetik uko egin dio IIP programetarako kontratazioak erregulatzen dituen atala negoziatzera eta behin eta berriro bertan behera uztea eskatu ondoren hiru alditan Mahai Sektorialek altxatu gara. Hala ere, Hezkuntza Departamentuak, kosta hala kosta IIP programen zabalpenarekin aurrera jarraitzeko asmoa dauka, nahiz eta horretarako irakasleak akreditatu ez duen. Dekretu honen bidez, programa hauetan klaseak emateko beharrezkoa den hizkuntza maila jaisten du eta gainera ingelesezko irakasleak IIP programetan lan egiteko habilitatzen ditu nahiz eta titulazioa ez izan.

Astakeria honen aurrean, STEE-EILASen Dekretu honen berehalako erretiratzea eskatzen du. Berriro ere adostasunik eta negoziatorik gabe inposatzen zaigu eta azken 7 urteotan eskatzen daramagun bezala, Nafarroan IIP programen zabalpena geldiaraztea exijitzen diogu Hezkuntza Departamentuari.

EGINKIZUN ZERBITZUAK

Zerbitzu Eginkizunak proiektu edo programa espezifikoenak: Esleituak izan ahalko dira gehienez bi urtez. Lanpostuaren funtzioekin erlazioa duen memoria edo proiektu bat defendatu beharko da eta epaimahai batek baloratuko du. Plaza beteko ez balitz, Departamentuak lanpostua urtebetez eginkizun zerbitzuetan esleitzeko aukera izango du.

CAP, CREENA o EIBZetan zerbitzu eginkizunak : Bi urtez esleituak dira, hiru urte gehiagorik ez izango delarik. Denboraldi berri batera luzatu daiteke baina behin-betiko plazaren galtzea suposatzen du (dena den herri edo eremuko lehenetako eskubidea izango du lekualdatze lehiaketan). Aukeraketa sistema bi zatitan banatuko da: lanpostuarekin zerikusia duen memoria edo proiektuaren aurkezpena eta defentsa eta merituen balorazioa. Hutsik gelditzen diren lanpostuak urtebetez eginkizun zerbitzuetan esleituak izango dira.

Bestelako zerbitzu eginkizunak: Puntu honetan mota oso desberdinetako eginkizunak sartzen dira: osasun arazoengatik, seme-alabaren zaintzagatik, korporazio lokal bateko kide izateagatik, zuzendaritza karguengatik, ikastetxe berrien sorkuntzan, hizkuntzen irakaskuntza programetan eta goi mailako Musika kontserbatorioan edo "langilearen bestelako beharren arretarako, organo eskudunek materiaren arazoengatik behar bezala justifikatutako txosten/informe baten bidez" (behin eta berriaz azken puntu honen erretiroa eskatu dugu bere erredakzioak guztiz gardetasun falta errazten duelako). Zerbitzu hauek ikasturte baterako esleitzen dira eta denbora mugagabean luzatuak izan daitezke.

Zerbitzu eginkizun gurutzatuak: Behin-betiko funtzionarioentzako baimendu ahalko dira egoera berezietan eta gehienez bi ikasturteetarako.

STEE-EILASetik salatzen duguna arazo guztiz desberdinei erantzuten dioten zerbitzu eginkizunak puntu berean sartzea da, eta baita, beste zerbitzu eginkizun batzuekin egin den bezala denbora mugarik ezarri ez izana.

LEKUALDATZE LEHIAKETA

Ingeleseko, frantseseko edo euskerazko oposaketak gainditu zituzten behin-behineko funtzionarioek hizkuntza perfilarekin eskeintzen diren haur eta lehen hezkuntzako lanpostuak eskatzeko aukera izango dute, beti ere beharrezko titulazioa izan beharko dutelarik.

Behin betiko funtzionarioen nahitaezko lekualdatzerako ateak irekitzen zaizkie ikastetxeak desdoblatu eta kentzen direnean.

Nabarmendu beharra daukagu Departamentuak hasiera batean hizkuntzen irakaskuntza programak ezartzen dituzten ikastetxeak ere puntu honetan sartzea nahi zutela baina STEE-EILASen ekitearen ondorioz, erretiratzen bukatu zuten.

Lekualdatze lehiaketatik at eta ohizko lehiaketarekin bete ezingo ziren perfil zehatzak eskatzen dituzten lanpostu espezifikoak, behin-betiko lanpostu bezala eskaini ahal izango dira. Betetzen ez diren deialdiak, zerbitzu eginkizun bezala esleituak dira ikasturte baterako.

Departamentuaren
inposaketen aurrean,



Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea

31014 Iruñea

TEL 948 21 23 55 FAX 948 22 97 90

nafarroa@stee-eilas.org